

Jean Baptiste Elizanburu

PIARRES ADAME

Saratarraren zenbait hitztorio
Laphurdiko eskuaran

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio informatiko honen egilea: Josu Lavin; Urkiola,
1-1C 48990 - Getxo (Bizkaia)

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00267.htm>

1en KAPITULA NON, NOIZ ETA NOLA EZAGUTU NUEN PIARRES ADAME

Mila-zortzi-ehun eta berrogoita bortzean, Buruilaren hastean, astelehen goiz batez, Sarako ezkilak bederatzi orenak yotzen zituelarik, muthiko gazte luxe bat, hamabortz urtheren ingurua nonbait han zukena, Leheteko yauregiaren hegian barna Azkaingo bidean haya-haya zohan.

Gizonek bezala egin nahiz, bizkarrean ezarria zuen maripulisa, makhila txar baten gainean trebeska, eta lephoan artha handirekin inguratua zuen xerrenda nabar eta herxiak erakustera ematen zuen igandetako arrokekin aphaindurik bideari lothua zela.

Itxuraz muthiko horrek bazuen adin bereko muthiko hainitzen egite. Geldirik iduri zuen xirio bat, zabilanean, xarlango bat.

Borda-handiko aldapa gora muthiko hori ikhusi zuenak igaten, erranen zuen bazuela, xar-

langoaren itxuraz bertzerik, erran nahi baita itxurarekin abilezia.

Beraz, gantzak hanbat trabatu gabe, mendixka horren gainera igan zenean, bertze aldean den erreka zolara yauxi baino lehen, gure muthikoak, begikolpe batez, besarkatu zuen San Inaziora heltzeko segitu behar den orga-bide luzea, esperantza izan balu bezala bideko lagun baten han ikhustea.

Nahiz denbora hartan ez ziren bide hortan astean lau arima ibiltzen, ortzirarez salbu, zeinetan baita Doni-Yoaneko merkhatua, fortunak nahi izan zuen, egun eta oren berean, kausi zadin gizon bat bide beraz Azkaingo aldera zohana.

Ikhusteko zen orduan muthiko horren zangoek, patarra gora on baziren, patarra behera zer balio zuten! Ximizta bezala bide laburrez firrindan erreka-zolara yauxirik, ur baten gainetik salto eginik, gure muthikoak, Amen errateko behar den denboran, orgabidea iragan zuen, eta, aitzinean zohan gizonak bazituen oraino ehun bat urhax bedere egiteko San-Inazioko kaperarat

heldu baino lehen, muthikoa yadanik aldean baitzuen.

Gizonaz mintzatu baino lehen, erran dezagun muthikoaz azken hitz bat. Yakin zazu beraz, irakurtzaile maitea, muthiko hura zela lerro hauk hemen iskribatzen dituen bera, eta nola hartua baitut luma eskuan, ez nitaz mintzatzeko bainan nere bideko lagunaz, nahi baduzu hortan utziko dugu muthikoaren hiztorioa.

Beraz, erran dutan bezala, San-Inazioko kaperarat heldu baino lehen, nere gizonari hurbil nintzen, bainan oraino bortz edo sei urhaxez gibeletik.

Nola ezagutzen baintuen Sarako yenderik gehienak, gizon hori gibeletik ikhusiz iduritzen zitzaidan ez zela Saratarra izan behar.

Oraino ehun bat urhaxetan nintzelarik ikhusi nuen gizon horrek nik bezala ezarria zuela maripulisa bizkarrean, makhilaren puntan trebeska, bainan makhila nik baino ederragoa eta azkaragoa zuela. Ni nere gisan bezala, hura ere berean igandetako arropa ederrenekin beztitua zen. Soinean zituen galtzak eta bizkarrean zinzilika zuen maripulisa oihal beltz ederrezkoak ziren; zango-

etan espartin berri-berriak; eta gero, ondora-tzean ikhusi nuen bezala, barneko seda leguna, dir-dir-dir egiten zuena, hura ere beltz-beltza; buruan zuen gaphelu urdin eta zabalaren azpitik yausten zitzaizkon bizkarreraino ile kroskoil eta luxe batzuek, elhurra bezain xuriak. Ezagun zen gizon adinekotto bat behar zela izan.

Ikhusi nuen ere, oraino urrunxko nintzelarik, gizon horrek, makhila esku batez zarokalarik, bertze eskuaz kheinu batzuek egiten zituela, nahiz ez zuen nihor aldean.

Aithortzen dut kheinu-meinu hoyek urrundik ikhustean nere buruarekin egon nintzela gizon horrek othe zuen bedere martilu-kolpe bat non-bait, eta aphur batez, gelditzekotan ere izan nintzela gizona urrunduxe artean; bainan, haizeari medioz, aditurik kanta errepikaz zagola, eta gogoraturik naski eskuaz ahoa laguntzen zuela, atrebitu nintzen hurbiltzera halere.

Gero, ohart-arazteko gure gizona norbait bazuela aldean, eztul bat egiten dut. Harrabox bat hoin hurbil aditzean, nere gizona salto batez itzultzen da «Axut!» oihu egiten duelarik, eta bi

begi handi idekitzen dituelarik, erraten darot boz izigarri batekin:

—Nongoa haiz? Norat oha?

Orai gure arteko solasez mintzatu baino lehen, erran dezagun bi hitzez gizon hori aitzine-tik ikhusiz, zer itxuretakoa zen.

Ikhusi zuenean haren begi handiek eta oihu ikharagarriak ez nindutela hanbatik izitu, gizon horrek, emeki-emeki, ezarri zituen bere begiak Yainkoak eman zioten negurrian eta boza ere ba. Beraz, ez zen iduri nahi zuen bezain gaiztoa.

Athorra bat bazuen soinean elhurra bezain xuria eta athorra horren fola hain zen ongi lisa-tua non xut-xuta baitzagokon lephoan eta igaten baitzitzaion beharriez gorago. Lephoko bottoina zilharrezkoa zuen eta beheraxago paparoan zuena hexur xurizkoa. Soinean ez zuen galtzerdi-rik; geroago ikhusi nuen bezala, galtzerdiak eza-riak zituen zapatekin maripulisaren azpian eta makhilaren puntan gurutzatua zuen mokanes baten barnean. Galtzak moda zaharrear eginak, erran nahi baita zubi handia zutela. Aitzinean kobrezko botoin handi bat, hori-horia, eta urheak bezala distiratzen zuena. Ezker eta eskuin,

saihex bakhotxean, bottoin ttiki bat, naski hexurrezkoa eta oihalez estalia. Galtzen zubia sakela zuen aldetik idekia, dudarik gabe han zituen doxa, harri, karyo, nabal eta bertze asko errementen aiseago hartzeko.

Saltoz nere aldera itzuli zenean, bazuen ahoaren eskuineko xokhoan pipa motz bat beltz-beltza, estalki hori batekin, eta nola dilindan ahoz behera baitzagokan, ezagun zen ez zuela hortzen artean bainan ba ezpainen artean. Egia da itzuli eta mintzatu baino lehen, nere gizonak pipa eskuan hartu zuela.

Beraz erraten darot:

—Nongoa haiz?

—Sarakoa.

—Sarakoa?

—Ba yauna.

—Saran zeintakoa haiz?

—Matxinenekoa.

—Hanbat gaizto hiretzat.

—Zer?

—Ez, deus ez... deus ez... zer duk izena?

—Pello.

—Pello?... to! to! to! ez haiz hi beattar izana?

—Ba yauna.

—Ezagutzen nauk beraz?

—Iduritzen zait lehenago ere ikhusi zaitudala, bainan ez naiz segur.

—Beha nezak ongi, eta orhoit hadi!... zer! ez duk ezagutzen Piarres Adame?... Eta Saratarra haizela diok? Nork ez du ezagutzen Piarres Adame, Saran eta bertzetan, famaz bedere?... Behin ikhusi nauenak ez naik ahanzten!...

Egia da hurbildik edo urrundik Piarres Adame ikhusten zuena ohartzen zela berehala gauza batez. Ez dakit balio duen gauza horren hemen aiphatzeak: Zertako ez?...

Beraz giristino, yudu eta bertze guziek bisaia-
ren erdian Yainkoak ezarria dugun haltura, Piarres Adamek negurri gaitzekoa zuen. Espantu handirekin mintzo zen bere sudurraz, eta ohore handi bat zitzaion ez baitzuen egundaino nihon kausitu edo ikhusi nihori negurri hortako bertze organo bat. Erraten zuen ere Piarres Adamek, behin aditurik Nafarroako herri batean, ene ustez Alduden, bazela errotazain bat sudurrez fama handia zuena, guan zela, behar den moldean aphaindurik eta bere makhila ederra

eskuan harturik haya-haya eta mendiz-mendi nafartar famatu horren herrira, eta, han, gudua ikhusi zutenen arabera, Lapurdi Nafarroari nagusitu zela; herri hartako hauzo aphezak eta konseiluko hiru gizonak erran zutela goraki eta paperean ezarri: Nafartarrak franko luxea zuela sudurra, bainan mehea; aldiz laphurtarrak luzea zuela eta lodia; beraz Piarres Adame nagusi zela...

Ni ere orhoiturik sudur hori ikhusi nuela lehenago ere behin baino gehiagoetan, erraten diot Piarresi:

—Ba yauna, orai ezagutzen zaitut.

—Ez duk damu, Pello, erraten darot Piarresek, ez duk segurki damu, orhoitu baihaiz azkenean! Ezen hiretzat ahalke handia lukek, hire adinean herriko lehen-gizonetarik baten ez ezagutzea!...

Gero, burua altxatuz eta daldaratuz, Piarresek, ezpainen artean eta bere buruarekin mintzo balitz bezala, aditu nuen erraten zuela: «Ba, segurki balio dik Xuberoan eta Nafarro behean barna famarik handiena izateak, herrian berean

doi-doia ezagutua izatekotz?... Egia duk nihor ez dela bere herrian profet...»

Hola, aphur bat gogoetan egon ondoan, Piaresek athera zuen doxa sakelatik, bethe bere pipa motz eta beltza, eta ezpainen artean eta xokoan dilindan ezarri; gero, nabal baten gibela harri bat yoz, pindarrak athera eta karyoa piztu; azkenean labeari su eman.

Orhoiturik ez niola oraino erran norat nindon, galdetzen darot, bigarren aldikotz:

—Norat oha?

—Olhetara.

—Olhetara? Bestara beraz?

—Ba yauna.

—Ongi duk; ni ere Olhetara nohak; nahi baduk, eginen diguk bidaia elgarrekin, eta nola iduri baituk, nahiz behar bada zerbait badakikan, badukala oraino gauza hainitz ikhasteko, bidean guazilarik erranen darozkiat nere haur denborako eta geroztikako zenbait hitztorio; nahi duk?

—Ba yauna, nahi dut segurki eta gogotik halere. Hainitz maite ditut hitztoriak, eta sinhes ten ahal duzu ez dutala erortzera utziko zure hitzetarik bat xoilki.

—Ongi duk beraz, Pello, eta orai aski duk beharriak erne atxikitzea.

Badut beldurra, irakurtzaile maitea, Piarres Adamek niri erran hitztoriak, hark erran bezain ongi ezin ezarriko ditudala zure begien aitzinean. Ez dut bada borondate ona eskas, baina nola, Piarresek niri gauza horiek erranez geroztik, urtheak eta urtheak iragan baitire gainetik, badaiteke nere memorioak ezin bilduko dituen aski fidelki hark niri erran solas guziak, nik zuri hitzez hitz errateko. Halere, hasi naizenaz geroztik behar dut segitu ahal dutan hobekiena.

Orai utz dezagun Piarres Adame bera zenbait hitztorioen erratera.

Huna nola erran zuen lehen hitztorioa.

2en KAPITULA PIARRES ADAMEREN HAURREKO HITZTORIO BAT

Bidean ginohatzilarik, Piarres aitzinean, ni gibelatik, huna nola mintzatu zen:

«Egun naizen bezala aphaindua ikhusiz, hik uste duk behar bada, Pello, aldean dukan gizona etxeko-yaun aberax zenbait dela?

»Hire adinean nik ere uste nian arropak egiten zuela fraidea, bainan geroztik ikhusi diat eta ikhasi, nere gostuz, debru franko badela saindu itxura hartzen duenik.

»Gaztegi haiz oraino hi, Pello, gauza horren ongi pisatzeko; utz dezagun beraz hori hor, berdin aski goiz ikhasiko duk egia diotan ala ez. Orai yakin behar dukana duk ez naizela hik uste dukan gizon aberaxa, nahiz, ni baino beharrago-ko hainitz baden.

»On duk ere ikhas dezakan nik baino urhe gehiago duen hainitz balinbada Sarako herrian, ez dela bat nik baino irri gehiago egiten duenik. Zer nahi duk? Yainkoak holakoa egin nindian, eta

ongi egin zian ! Izan hadi hi ere, Pello, ahal baduk, ni bezalako! Eta, orhoitzeko bethi Piarres Adame, gizon zuhurraren erranez, har zatzik eta atxik gogoan kantatzera nohan zenbait berxu hauk.»

Eta Piarresek, bethi aho-xokoan zagokalarik bere pipa motx eta beltza, huna zer kantatu zuen, ezti-eztia, aire zahar hamahiru pontuko batean, berxu bakhotxa ederki doblatzen zuelarrik:

1.

Yakinxunen arabera nork berak du berea,
Mundura agertu denean ekharria zortea;
Yainkoak egin bezala nik maite dut nerea,
Nahiz ez den, yenden ustez, zorionez bethea.

2.

Zaharren erran ederrez nola bainaiz orhoitzen,
Tribes heldu diren gauzak nik zuzen ditut hartzen;
Aitak zarotan ikhasi, gizon zuhurra baitzen,
Irriz hartuz, zorigaitza zorion bilhakutzen.

3.

Denbora heldu den gisa hartuz behar denean,
Aste guzia daramat bihotz onez lanean,
Argitik ilhuneraino, bethi lekhu berean,
Bikhe, trukes, ezten eta martiluen artean.

4.

Yarri banindu zorteak erregeren tronuan,
Errege zen gerthatuko nere tresnak eskuan:
Galduko ginuen naski biek gure tratuan?...
Egoitea hobe dugu beraz garen lekhu!

5.

Zoroak ez duenaren bethi du gutizia;
Atxekabeen bizi da nahiz bertzen ongia;
Zuhur gisa nik baitakit labur dela bizia,
Irriz nahi dut iragan ahal badut guzia!

6.

Maite duen zikoitzari nik uzten dut urhea,
Zilharrik ez dutanean aski baitut kobrea;
Nahiz izan, aberaxek, bizi-modu hobe,
Ez dute nik baino lehen akhabatzen urthea!

7.

Nere gisa zenbait bada, zorionez, herrian,
Alegera bizi denik zuhurtasun handian;
Basoak eskuan eta hitz ederrak mihian,
Gu bezalako guti da zeruaren azpian!

8.

Mahainean lagunekin naizenean yarria,
Naizela zait iduritzen munduko nagusia;
Gizonik aberaxena pobre bat da handia,
Guk bezala, berak ontzen ez badaki bizia!

9.

Yainkoak, maitha dezagun erran baitu laguna,
Behar dugu lagunentzat egin ahal duguna;
Adizkidek arpegia dutenean ilhuna,
Nerekin ethorritz dute kausitzen osasuna.

10.

Hiltzen naizen egunean adizkiden bilkhura,
Soka-dantzan ethor bedi ni lo nagon lekhura;
Zuhurrenak buta betzat azken hitz hauk burura;
«Irriz leher egin eta guan da bertze mundura!»

Piarresek, nola kanta hori akhabatu baino lehen hil baitzitzaien pipa, berriz piztu zuen; gero hola segitu hitztorio hasia:

«Badik, Pello, hiruetan hogoi eta hamar urthe Piarres Adamek lehen aldikotz, ikhusi zuela argia; han duk herriko-etxeko liburuetan ezarria: Piarres Adame, bere aita eta amaren semea, sortua Saran, maihatzaren 14an mila-zazpi-ehun eta hiruetan-hogoi-eta hamazazpian.

»Denbora hartan oraino urrun hintzen hi, Pello...

»Hitz-eman daroyat nere gaztetasuneko zenbait historioren erratea, bainan, gaztetasunaz mintzatu baino lehen, denbora badugunaz geroztik, behar darozkiat lehenik nere haurtasunaz zenbait hitz aipatu.

»Nere haurtasunaz, Pello, amex batez bezala orhoitzen nauk. Bertzek erranik bazakiak, lau urthe nituelarik, umezurtz bilhakatu nintzela. Nere burasoak (Yainkoak bere lorian dituela!) Etxetxarreko borda txarragoan zituan maizter, eta baziteyan haz ahala haur; bainan, goizetik arrax lanean hariz porrokatuak, irabazten edo biltzen ziteyan gure eta bere hazteko dina.

»Urthe izigarri batez, gaitz handi, bazter guziak doluan ezarri zituen batek, gure aita eta ama ereman zitian; hobeko baitzen naski haurren erdiak ereman balitu, burasoak utzirik! Bainan Yainkoak ez zian hala nahi izan!

»Beraz, gelditu gintuan haur multxo bat, zaharrenak ez baitzuen oraino hik orai dukan adina, eta gaztenak hiru urtheren ingurua.

»Ikhusten dukan bezala, Pello, ez zuan beraz haurride guzietan bat talo egiteko ere on zenik, eta halere non zen irina, talo egiteko?...

»Hauzoko yende onek lagundu ez bagintuzte, nork daki zer bilhakatuko ginen? Bainan Yainkoak, bere ontasun handian, ezarri zian, guretzat ere bertzenzat bezala, gaitzaren aldean erremedioa...

»Ikhusi duk behinera, Pello, mendian, iratze edo othe-pean, epher-familia bat alhan dabilala? Zer da ederragorik, zer da bihotz-hunkigarriagorik harrak eta emeak xitoentzat duten amodio handia baino?... Umeak handitu diren arteraino, bere hegalez ibiltzeko on direneraino, epher aitamak ez dituk umetarik urruntzen... Hartakotz, berak ere, airean ibiltzeko ordean, umeak

bezala herrestan zabiltzak...; Ihiztari gaiztagin bat dathorla...; tiro batez hil dezala aita edo ama... biak hiltzen ez dituenen?... Zer bilhakatuko dire xitoak? Zer bilhakatuko diren?... Eta Yainkoa, Pello, Yainkoa???

»Orhoit hadi, Pello, Yainkoaren borondatea, Yainkoaren ontasuna hedatzen dela, ez xoilki gizonen gainera, bainan oraino ihizien gainera, eta gizonen haurreri yanharia bezala xorien umeri ematen diotela behar duten hazkurria!...

»Beraz, adinarekin ezagutza ethorri zitzaitanean, kausitu nian Piarres Adame, honyo batek bere burua iratze ondo baten pean kausitzen duen bezala, Yainkoaren borondateak ezarri zuen lekhan...

»Ez nauk mintzatuko nere sei haurridez, nahiz ikhusten dutan, Pello, hire begietan, yakin nahi hukela zer bilhakatu ziren haurrak, Yainkoak bere gana burasoak deithu zituen ondoan. Luzegi lukek guziez mintzatzea; berdin egungo egunean, zazpi haurridetarik bakharrik nauk bizi; bertzeak, lurrean exairik utzi gabe, burasoen aldera guanak dituk.

»Orhoitzen naizenean, nere amaren musuez eta aitaren lausenguez, oraino ere, Pello, loria-tzen nauk, eta nigar bat heldu zaitak begietara. Ikhusten dukan bezala, ez ditiak ahanzten hau-rrideak ere...

»Nahiz sei urthetan abiatu nintzen eskolan, bederatzi urthetan ez nakian oraino irakurtzen. Bizkitartean, yaun errientak erraten zian, aditu nahi zuenari: ez zela, eskola zian, nik bezalako burua zuen haurrik.

»Egia duk buru bat banuela gaitza, sei hilabe-teko aratze batek bezain handia; bainan ordean gogorra!...

»Ikhara bat heldu zaitak oraino zainetara, Pello, orhoitzen naizenean, denbora hartan, orai-no haurtzar bat nintzelarik, egin nuen bekhatu batez. Ahalke ere behar nitek izan hiri gauza izi-garri horren aithortzeko; bainan hitz eman baita-royat nere hitztorioaren dena den bezala erra-tea, nere ile bakhar, luxe eta xuriek gorritu behar badute ere nere hitzari ohore eginen diat.

»Beraz hazilaren lehen eguna zuan; dakikan bezala, besta eguna, bizek hilentzat othoitz egi-ten dutena...

»Nola, meza-nagusiko denboran behar baini-tuen zaindu behiak sorhoan, argi-hastean yeiki-rik eta igandetako arrokekin beztiturik, banohak goizmezaren aditzera. Hil-harrietara heldu naize-nean, ikhusten diat elizako athean nere hegine-ko edo handixagoko haur multxo bat, liburu ttiki batzuek eskuetan, sos galdetzen hari direla mezara heldu diren yenderi, *Domine ne...* errate-ko.

»Nik Pello, ez nian libururik, ez eta ere beha-rrik irakurtzen ez nakielakotz; bainan ikhusiko duk zer malefizio debrua ethorri zitzaitan burura, eta, oraino gehiago dena, mezako denboran.

»Bertze haurreri biltzen ikhusi nituen sosek xoratu, liluratu ninditeyan.

»Elizan, ni nintzen alkhi berean yarria, bazuan nere hauzoko muthiko bat, ni baino han-dixagoa; izena zian Mattin. Nola baitzakien ira-kurtzen aski pulliki, eta bildu baitzituen meza aitzinean lau sos hilentzat othoitz egiteko, aphe-za aldarean zelarik, Mattinek erran zian lau aldiz liburu guzia, lau sosen *Domine nea* zor zuela-kotz.

»Badiat beldurra, Pello, *Domine ne* hoyek, ongi erranak izateko lasterxko erranak izan ziren, bainan Yainkoak, dudarik gabe, aditu zitian halere.

»Meza ondoan, elkharrekin elizatik atheratu eta, Mattinek, nik galdeturik, uzten zarotak bere liburua, hobeki eginen baitzuen segurki berekin ereman balu! Bainan, nola haur on bat baitzen, eta uste izan baitzuen, nik erran nion bezala, axaleko xoriaren ikhusteko galdetzen niola bere liburua, Mattinek onhexi zian beraz, lagun on gisa, axegin horren egitea.

»Goiz-mezatik lekhora, meza-nagusia baino lehen, bazuan, denbora hartan, meza bat, arteko meza deitzen zena.

»Bertze haurrek bezala sosak bildu nahiz, deliberatu nian, Pello, Mattinen liburua eskuetan nagokalarik, bertzek bezala sosak galdegitea, berdin *Domine nen* ordean, erranen nituela arrosario dobleak.

»Orai ikhusi behar duk zer tribulazioneak izan nituen nere malefizio izigarria zela medio!

»Nola ni bezala eskolan zabiltzan haurrek baitzakiten irakurtzen ez nakiela, yarri ninduan,

bakhar-bakharrik, Helbarrungo aldetik elizak duen athearen aldean, eta, nola yende guti sartzen baita elizan athe hortarik, egon ninduan aphur handi bat nihor ikhusi gabe ethortzen.

»Hantxe nindagoyan liburuaren axaleko xoriari beha, noiz eta ere ikusten baitut hurbiltzen emazteki luxe eta mehe bat; bainan ez nauk atrebitzen deusen galdetzera.

»Yadanik, ahalke ninduan nere buruaz!...

»Emazteki hori etxeko andre on zenbait izan behar zuan, ezen bazian kaputxa bat berri-berria eta burutik zangotaraino estaltzen zuena. Bazukek emazteki gisako bat ere zen, bainan, oraino ere, izpirituz ikhusten dutanean, iduritzen zaitak, Pello, debrua ikhusten dutala!...

»Beraz, elizako athea ideki baino lehen, emazteki horrek, sakela handi batetik atheraturik, ematen zarotak bi-soseko bat.

»Egungo egunean ere ikhus baneza, Pello, bi-soseko madarikatu hura, ezagut nezakek oraino, balitz ere bertze ehunen artean, nahiz eskuratu orduko sartu nuen sakelan eta gero denbora gutiz gozatu, berehala yakinen dukan bezala...

»Emazteki hori dudatu othe zen ez nakiela irakurtzen? ala nahi izan othe zuen bere bi-sosekoaren balioaz berehala segurtatu? Ez zakiat, Pello; bainan nik dakitana eta sekulan ahantziko ez dutana duk berekin sar-arazi ninduela elizan eta bere aldean yar-arazi belhauniko...

»Elizaren erdixuan bezala zian bere yar-lek-hua.

»Piztu zituenean bi edo hiru argi, (ez nauk orhoitzen zenbat, ikhusi bainituen gero hogoi eta hamar bedere), argiak piztu eta, ni ordukotz harri zabal hotz baten ganean belhaunikatua bainintzen, erraten zarotak:

»—Orai has hadi, muthikoa.

»Liburua idekitzen diat, Pello, eta hasten nauk alegia irakurtzen ixil-ixila; bainan gure emaztekiak ez-bide zian gauza hala aditzen, ezen erraten zarotak oraino:

»—Emak gorako, muthikoa; eta begi bazterrez behatzen dik nere aldera...

»Ez zakiat, Pello, ez othe narokan liburua ere buruz behera...

»Orduan zer iragan zen nere baithan... zer ikharak ibili ziren nere zainetan!... zenbat argi

ikhusi nituen dantzan hari zirela nere begien aitzinean... nere belhaun xorrotxak harri hotzaren gainean koskan hari zirelarik!!!...; ez, ez, Pello, ez zukek erran! Yainkoak begira haitzala, mutikoa, holako tribulazionetarik!

»Geroztik yakin diat emazteki horrek, beharri batetik harturik, merezi nuen bezala, herrestan, elizako athe handienetik kanpoan ezarri ninduela eta, nahiz eliza ez zen oraino yendez bethea, meza ez zelakotz hasia, izan zuan halere yenderik aski nere sekulako ahalkarazteko.

»Zer bilhakatu nintzen emaztekiaren errhiluxek nere beharria libro utzi zutenean, ez dik naski balio errateak?

»Etxe-gibelez etxe-gibel, landaz-landa, gathu zehatu bat bezala sartu ninduan etxera eta guan sorhora behiekin; egun guzian, behiak alhan zabiltzalarik, sasi xoko batean gorderik egon ninduan eta arrosario erratetik ez ninduan gelditu...

»Eguerdiko inguruan, ikhusirik Mattin aldeko landan, hura ere, ni bezala, behi zain zagola, eman nioyan bere liburua eta, denbora berean, emaztekiaren bi soseko madarikatua, zeinak erretzen baitzarotan sakela.

»Irakurtzen ikhasiz geroztik erran ditiat, Pello, ehun aldiz bedere, liburuan diren *Domine ne guziak*, erran arrosarioez salbu, agian Yainkoak barkhatuko darotalakotz haurreko malefizioa; baina halere uste diat ez dutala sekulan ahan-tziko!...»

3en KAPITULA PIARRESEN OMORE ONA BIDEAN. NOLA EGITER NUEN HAMEKETAKOA AZKAINEN

Piarresek hitztorio hori akhabatu zuenekoitz, Azkaingo herritik hurbil ginen, eta herri hortara heldu baino lehen, iragan behar zen erreka luze batean ginohazilarik, bidean gurutzatu ginuen mandozain bat, bi mando zahar kaprestutik zaramatzana ikhatzez kargatuak.

Nola gehienek ezagutzen baitzuten Piarres Adame, eta nola Piarresek ere ezagutzen baitzuten gehienak, gapheluak khendurik elkharri agur erran ginuenean, ikhazkinak erraten du:

—Bagabiltza, Piarres?

—Ba, bagabiltza; zuek ere ba?

(Dударik gabe Piarres mandozainari eta mandoeri mintzo zen denbora berean).

—Urrun goazi hola, Piarres?

—Holaxe... holaxe... norbaitek galdetzen badarotzu, aski duzu erratea ez dakizula.

—Semea duzu aldeko muthiko hori?

—Ez, alaba.

—Ori, fortuna du.

—Zertako?

—Zeren, zurea balinbada, semea izan dadin, edo izan dadin alaba, ez baitu aitaren egiterik.

Piarresek, ezpainak zimurtuz, ezarri zuen piko hori sakelan; ez ordean hargatik erortzera utzi, ikhusiko dugun bezala?

Aphur bat ixilik egon eta, gure mandozaina bideari berriz lothu zenean, Piarres, oraino gelditua, hasten da oihuka, erhiaz gibelesko mandoa erakuxiz:

—Behautzu! behautzu! higitzen da! erortzera doha!

Mandozaina orduan, ustez zaku bat mandotik erortzera dohakon, badoha tarrapataka gibelesko mandoaren aldera erraten duelarik:

—Non? Non?

—Hor! dio Piarresek, hor! Zer! ez duzu bada ikhusten higitzen dela?

Eta, denbora berean, erakusten dio mandoaren buztana...

Orduan, utzirik gure mandozaina ez dakit zenbat mila orgaz eta debruz mintzo zela, gunginen aitzina, segurki Piarresek irri ederrik egi-ten zuelarik bere ezpainen artean.

Urruntxago, bide zaharraren aldeko ur-erreka batean, hiru emazteki hari ziren bokhata yotzen. Biek altxatuek zituzten zaiak edo soinak belhau-nez goraxago, bainan ez modestia sobera kolpa-tzeko gisan? Hirugarrenak, mehe eta luxe bat baitzen, halako sei hal beltz batez estaliak eta gordeak zituen aztalak .

Egun on erran eta, Piarresek, oharturik bere-hala sei aztalen ordean lau zirela ageri, bidean trikaturik, eman zioten berxu bat, hamahiru pon-tuko aire zahar batean, hiru emazteki hoyeri.

Huna berxu hura:

Egun ni naizenean Azkainat hurbildu,

Hiru Graziek naute bidean gelditu;

Biek erakuxiak batek gorde ditu...

Ez zituen gordeko ederrak balitu?...

Piarresek ez zuen oraino errana berxu horren azken hitza, emazteki mehe eta luxe hori hasi baitzitzaion zer nahiren erraten, erakhuxiz beha-

tzak eta ukhabilak, bertze bi emaztekiak irriz kar-kar-kar zarotzilarik.

Orduan, nere aldera itzulirik, Piarresek erran zarotan:

—Goazen aitzina, Pello, berdin orai ez diguk hemen gauza onik adituko.

Eta berriz lothu ginen bideari.

Emazteki luxearen oihuak eta madarizioneak oraino aditzen gintuelarik, huna Piarresek zer erran zuen:

«Horra, Pello, batzuetan nola egiten diren exaiak, mihia dela medio; ixilik egonez hainitz hobeki eginen nian naski, bainan errana duk gero lehengoa, bihar atzokoa izanen dela Piarres Adame!

»Orhoit hadi, muthikoa, mintzatzeak zilharra balio badu zenbait aldiz, ixiltzeak maizago urhea balio duela; horra zertako gizon zuhurak, mintzatu baino lehen, biratzen duen mihia ahoan hiruetan bedere. Ahal baduk, Pello, balia hadi solas hoyetaz, ni neroni baliatzen naizen baino hobeki.»

Azkaingo herrian sarthu baino lehen, sorho baten erdian barna elizaren ondora erematen

zuen bide batean, Piarresek, herbi hexur batekin xirikatu ondoan, ezarri zuen pipa motxa bere gaphelu handian; aphur bat trikatu eta, gure maripulisak yauntzi gintuen, gero Piarresek lehenik, nik ondotik, atheka baten gainetik salto egin eta, sartu ginen biak Azkaingo herri amulxuan.

Nork ez du ezagutzen Azkain? Nork ez du adizkide bat bedere herri maithagarri hortan?

Piarres Adameren arabera, Azkaindarrak kasik Saratarrak bezain yende onak dire, eta ez da segurki guti erratea. Horra zertako erraten zuen Piarresek: «Saratarra ez banintz, Azkaindarrak nahi nitek izan.»

Aithortzen zuen ere Piarresek Azkainen exai gutiago zuela Saran baino, herri hortan gutiago ezagutua zelakotz, eta, bereziki, koplak gutiago eman zuelakotz. Bainan, bistan da Piarres, han eta hemen zenbait koplak emanik ere, gizon onegia zela exairik nihon izateko.

Azkaingo elizan hamar orenek yo berri zuten gu herri hortan sartu ginenean. Dudatzen nintzen Piarresek, bidea urrunago segitu baino lehen, nahiko zuela egin pausatto bat Azkainen, ezen ordukotz, hitz-erdi batez aditzera eman

zarotan «hameketakoa» zela gauza bat egiten zena, ez bethi xuxen hameka orenetan, bainan ahal zenean.

Beraz, Azkainen sartu orduko, Piarresek, ezker uzten ginuen bide bat erakuxiz, erran zarotanean: «To, Pello, horra Olhetako bidea» eta, denbora berean, eskuin hartu zuenean pilota-plazaren erdian barna, ikhusi nuen berehala zer xede zuen.

Gizon propia iduritu bazitzaitan Piarres bidean khausitu nuenean, zer gizon ederra zen, bere maripulis oihal beltzezkoa soinean eta bere makhila letoindun gorria eskuan Azkaingo plazaren erdian barna, ihi bat bezain xut zohalarik!... hogoi urtheko muthil gazte batek bezain aise altxatzen zituen burua nola zangoak, eta Azkaindarrek, yakin balute Piarres Adame han iragaten zela, ez da dudarik segurki ikhusi nahiko zutela; beraz behatuko zutela. Bainan, suertez edo bertzela, ez ginuen ikhusi arima bat agertzen ez kanpora, ez eta ere leihoetara; xoilki plazaren erdian alhan zabiltzala dotzena bat edo hama-bortz antzara, Piarresek ez baitzituen ikhusi ere, burua goregi altxatzen zuelakotz.

Plazaren buruan den etxe propi baten athera heldu ginenean Piarresek, athe hori makhilaz borthizki yo eta, boz ikharagarri batekin oihu egi-ten du: «Hela!...» eta, emazteki boz ezti batek ihardexi zuenean: «Aitzina!» sartu ginen ezkerreko aldetik zen sukhalde airos batean.

Etxeko andre horrek egin zarokun begitarte bat daiteken hoberena; uste dut ere, ikhusi baino lehen Piarres, ezagutu zuen Piarresen boza.

Emazteki horrek, nahiz ez zen adinaren primaderan, erran nahi da gazte-gaztea, bazuen segurki halere kanpoz behar den bezenbat grazia gizon bati buruaren itzul-arazteko, eta aski zen aditzea yakiteko berehala barnez, bihotzez ere hoberenatarik zela.

Ohartu nintzen ere, emazteki amulxu hori behatzen zuen guzian, Piarresen begiek nirnir egiten zutela, dudarik gabe etxeko andre hori estimu handian zarokalakotz?

Aphur bat solas egin ondoan, Piarresek galdegin zuen hiru sosen edari azkarra bi baso flakoetan, eta, ni, ustez bi basoetarik bat neretzat

galdetzen zuen, ausartatu nintzenezan erratera: «Milesker, Piarres, ez dut edanen.»

«Badiat uste, erran zarotan, badiat uste ez dukan edanen!... hire adinean nik edaten nuen edaririk azkarrena, gazura zuan, Pello... bainan, ez hadila khexa bi baso galdetu badituz; ez ditik biak batek hartuko!...»

Etxeko andreak ezarri zituenean bi basoak, baxhotxa sei arditen edariarekin, mahainaren hegian, Piarresek hartu zuen bat eskuineko eskuaz eta egorri sudurretik beheraxago, begien hesteko behar den denboran; gero, pipa gaphelutik athera zuen, bethe eta piztu, ileti bat su-bazterrean harturik; altxatu zuen ezkeraz bigarren basoa eta hura ere zintzurra behera egorri lehenbizikoaren ganat.

Sedazko molxa gorri eder batetik atheraturik, Piarresek eman zion etxeko andreari hamar-oseko xuri bat, eta andre horrek bihurtu zioenezan xehea, solas eder hainitzekin, lothu ginen berriz Olhetako bideari, plazaren erdian barna.

Aldi hartan ez ginuen ikhusi antzararik ere kanpoan, eta, herritik atheratu baino ere lehen khendurik gure maripulisak ezarri gintuen zinzili-

kotz gure makhilen puntan, Piarresek, alde guzietara behatu eta erraten zuelarik: To, Pello, balio zian segurki hoin ederki aphaindua izateak, nihork ez begiratzekotz !

4en KAPITULA PIARRES ADAMEREN HAURREKO BIGARREN HITZTORIO BAT

Azkaindik Olhetara ez da bide luzea; lekho baten ingurua nonbait han. Den baino ere hamar aldiz laburrago iduritu zitzaitan bide hori, nere laguna zela medio.

Azkain gibelera utzi ginuenean, Piarres, indarrak bildu berria baitzen, hasi zitzaitan mintzatzzen gisa huntan:

«To, Pello, nahiz ezagutzak egin berriak ditugun biek, iduritzen zaitak yadanik bi adizkide zahar garela; egia duk nerekin ethorri haizela hameketakoaren egitera, eta, trinkatzer ere dugula elkharrekin...; hox! erran behar diat, orai artean gobernatu haizela muthiko prestu baten gisa... Beraz ohorea eta zoriona ditukanaz geroz Piarres Adamerekin bidearen egiteko, ez duk errana izanen ez haizela baliatu Yainkoak eman darokan fortuna on hortaz, ezen, behar darozkiat

erran oraino nere haurreko eta gazteko zenbait hitztorio.

»Aipatu darozkiat yadanik zenbait hitz nere haurtasunaz; badakik sei urthetan abiatu nintze-la eskolan, eta, zazpietan, ez nakiela oraino gauza handirik. Ez nian bada burua eskas!... Ene ustez, erran daroyat lehenago ere nolako burua nuen haur-haurrean ere. Hox! orai sudurra dutan bezalako!... Gogorki handia, Pello, gaitza! Bainen ordean debrua bezain gogorra!... Halere erran zukek ez nuela arras galdu denbora; ezen, hameka urthetan, irakurtzen nitian aski pulliki, ba eta franko ederki ere, liburu Izpiritualean diren othoitz eskuara eta latin guziak.

»Ikhasteko buru gogorra banuen, Pello, ez zuan hargatik eskola guzian haur bakhar bat ni bezain abila zenik arbolen gainerat igateko? Bertze muthikoak, ikhusten zutenean xori-ohatze bat arbolarik den gorenean, berehala nere bilha heldu zituan.

»Deus ez zuan izanen ohartzetetan baizen ez banu baliatu nere abilezia suertea... bainan, aldi batez, aran ondo baten gainera igateak zer ondorioak izan zituen neretzat eta zer zurra-

aldia merezitu eta?... bainan has gaiten hastetik, Pello; has gaiten hastetik...

»Beraz, behin, aste-azken arraxalde batez, nere eskolako bi lagun Lehenbizkaitarrek, ni nintzen alkhi berean yarriak baitziren, erraten zarotatek: Oi! Piarres, Piarres, zein aran ederrak diren hantxe, Juanareneko ondoan, bide-hegi-hegian!... Arbola guzia mukuruku estalia duk aran hori-hori eta onyu-onyu batzuez!...

»Solas hoyek aditzean, Pello, ur goxo bat ethortzen zaitak ahora, eta halere erraten zioteyat: Bainan muthikoak, aran hek ez othe dire norbaitenak?

»Ez, ziotek, ez, Piarres, ez dituk segurki niho-renak! Guzienak dituk, bidearen hegian direlako!

»Erraten zioteyat oraino:

»—Zertako ez ditutzue bada bildu?

»—Zertako ez ditugun bildu, Piarres? zeren arbola goregia baita guretzat.

»Aphur bat gogoetan egon ondoan, muthiko heyek erranaren bortxaz, batek: “Athor, Piarres” bertzeak: “Piarres, athor” beraz azkenean deliberratu nian, biharamunean, ortzeguna baitzen,

behiak landan utzirik norbaiten gomendioko, guanen nintzela aran famatu heyeri begi-kolpe baten ematera; eta, hartarakotz, Lehenbizkaitar hoyekin elkar aditu ginian hiruak oren berean kausitzeko, Juanareneko aldean.

»Denbora hartan, Pello, Lehenbizkaitar eta Plazatar muthikoak debuz eginak zituan; golkhoaren bethe malezia baziteyan; guk, Iztilartar eta Eyhalartarrak, lasterka gintuan abilenak. Beraz, hobeki eginen nian utzi banitu Lehenbizkaitar hoyek, zirenak ziren, berak beren hauzoko aranen biltzera; bainan zer nahi duk, Pello? Errana zuan eta naski izkribatua ere nonbait, Piarres Adamek behar zuela, egun zorigaitzezko hartan, irabazi bere abilezia suertearen saria, geroxago ikhusiko dukan bezala!

»Biharamunean, eguerditik oren bateko inguruan, hauzoko Mattinek hitz-emanik nere behiak zainduko zituela bere behiekin batean, banohak beraz, landaz-landa bidea laburtuz, Juanareneko aldera. Nere bi lagun Lehenbizkaitarrak han zituan yadanik.

»Erakusten zarotatek berehala aran ondo famatu hori, eta lehen begi-kolpean ohartu nin-

duan ez zela arbola hori hek bezperan erran zuten bezain estalia aranez, bainan, hox, bazian halere fruiturik aski, nere gutziaren pitzgarri eta nere abileziaren frogagarri.

»Aran ondo hori, zen lekhuan ikhusiz, nahiz baratzeko harresiaren kanpoko aldean zen, egon ninduan nere buruarekin arbola hori bazitakela aldeko etxekoa zen; bainan nere lagunek erranik berriz ere segurki mundu guziarena zela, atrebitzen nauk beraz, Pello, aran-ondo horren gainera atzaparka igatera.

»Bazian aphurttu bat han hari nintzela bil-eta-bil; yadanik golkhua ere bethe hurrana nian onduenez; bertzeak, naski dudatzen haizen bezala, azpiko laguneri egortzen bainituen, noiz eta ere, Pello, aditzen baitut halako boz herdoil eta erlax bat, saingaz bezala mintzo dena... mundu huntako eta bertzeko madarizione suerte guziak azpitik gora naski nere aldera egortzen dituelarik... eta, denbora berean, lur-muilo batek yotzen naik belhaunean!...

»Sekulako harritia, behatzen diat lurrera... eta han ikhusten... Yesus! Maria!... axo zahar bat... bi begi gorri izigarriekin... ukhabilak eta

behatzak bi hortz luzekin erakuxiz, altzoan zituen harri eta lur-muilo guziak, bere madarizio-
nekin batean, nere gainera besaginka egortzen
zituena!... “Ohoina!” deitzen nindian... “ohoi-
na!... Urde ohoina!...” Eta gero norbait deithu
balu bezala: “Manuel?...” egiten zian oihu,
“Manuel?... Ho, Manuel?...”

»Banian zer erran: Zer duzu, emaztekoa? Zer
nahi duzu? Nik, zer egin darotzut? Ez zian deusik
aditu nahi... eta haren harri eta lur-muilo kolperi
ihes egiteko, bortxatua izan ninduan igatera
arbolaren puntaraino!...

»Handik ikhusi nitian nere bi lagun Lehenbiz-
kaitarrak, orgabideaz bertze aldeko sasi baten
xokoan, irriz kar-kar-kar zagotzila, ikhusiz nere
tribulazioneak!...

»Dudatzen haiz naski, Pello, zer itxura egiten
ahal nuken nere abilezia handiak ezarri ninduen
lekhu gora hortan!... zeruaren eta lurraren
artean!... Batetik nola bertzetik berdin hurbil
kasik!... Gorago igatekotz, behar zuan izan
hegastina...; behiti behatzen banuen, han ikhus-
ten nian nere axoa, geroago eta gehiagoko
omore tzarragoan... nere ganaraino harriak eta

lur-muilok ezin helduz, errabia gorriaren bortsaz ezpainen artetik harrapo berde bat zariola... atzaparrak erakhuxiz, erran nahi balu bezala: "Yaux hadi, yaux!... Atherako darozkiat bi begiak!..." Eta, bitartean, egiten zian bethi oihu bera!: "Manuel? Ho! Manuel? Ez nauk aditzen, Manuel?..."

»Ezin-bertzez, deliberatu nian beraz egotea aphur bat nere arbolaren puntan, agian azke-nean axoa, unhaturik, apazegatuko zelakoan. Bainan, ez zuan ez holakorik!... Eztitzeko ordean emazteki zahar horren errabia geroago eta gehiago borthizten hari zuan!... Penxa emak, Pello, zer kolore ahal zuketen nik, oren hartan, egiten nituen gogoetek! Zenbat mila xinhaurri sentitzen nituen bir-bir-bir zabiltzala nere parra-pioetan!...

»Noiz eta ere, muthikoa, ikhusten baitut, bet-betan, mutil animale traste bat, gaphelu gorri handi bat buruan, sagarde izigarri bat eskuetan, heldu dela, egin-ahalak-egin lasterka, landako patarra gora, belhar higitzen hari zen lekhotik axoarendeiadarrak aditurik!... Ez zuan dudarik,

Pello, muthil hori izan behar zela axoak helatu zuen Manuel!

»Orduan zer iragan zen nere baithan... zer ikharak ibili ziren nere zainetan, ximizta batzuek bezala... izerdi hotz bat buruaren kaskotik zangoen zolaraino xurrutan pil-pil-pil yausten zitzaitalarik... to, Pello, Yainkoak eta nik baizen nihork ez zakik!...

»Bi eskuez narozkan arbolaren adarrak utzi nitian... kurutzearen seinalea egin, ahal nuen bezala... nere arima eta gorputza ezarri Yainkoaren gomendioan... begiak, lehenik zerura altxatu ondoan, aphaldu... eta hexi...; gero, ihiztariak hil duen xori batek egiten duen bezala, adarrez-adar, aldaskaz-aldaska, nere burua erortzera utzi... lurreratzean, gisa guzietz, hil behar nuelako uste eta segurtasunarekin.»

**5en KAPITULA
NOLA YAINKOAK ADITU ZUEN
PIARRESEK ARANAREN
PUNTATIK EGORRI ZION
OTHOITZ LABURRA;
NOLA SARIZTATUA IZAN ZEN,
ABILA ZELAKOTZ**

«Orai ikhusi behar duk, Pello, nola Yainko onak aditu zuen zerutik, nik, irrisku latz-garri hortan, arbola madarikatu haren puntatik egin nion othoitz kharxua! Hemen izanen duk froga bat, muthikoa, ez dukala behar sekulan galdu Yainkoaren baithan izan behar den esperantzaz!...

»Arbola azpian zen axoak, ikhustean traputzar bat bezala inguruka gain-behiti yausten nintzela, beldurrez gainerat eror nindakion, ihes egin zian etxeko aldera, ehun debruek ereman balute bezala!

»Denbora berean, Yainkoaren borondateak nahi izan zian, aldaskaz-aldaska, arbolaren ondoko harrasi baten gainera eror nindadin... mirakuilu handi bat izan zuan gauza hala gerthaztea; begiak idekitzean, han kausitu nian Piarres Adame iztapeka harrasiaren gainean... eta nahiz hartu nuen kuskako bat gaitza (erran ez daiteken lekhu batean) halere, ikhusiz Manuelen sagardea geroago eta gehiago hurbiltzen hari zela, eta, nola ez bainuen gutiziarik batere sagarde horrekin ezagutzen egiteko, salto egin nian, laster halere, harrasiaz kanpora, eta gero, naski penxatzen dukan bezala, Pello, debruek hausteko, tarrapataka, lasterrari eman, Larrondoko aldera yausten den galtzada beheara, segurki gibelat hanbat behatu gabe!...

»Nik salto, eta golkhoan nituen araneke salto, ez ninduan gelditu lasterretik Ayimareneko hegian baizen... Handik, aditurik deihadar batzuek urrunean, gelditu eta itzuli ninduan, eta hor ikhusten diat, Pello, Yainkoak nere othoitza nik egin baino ere hobeki aditu zuela!... Ezen Manuel, nere Lehenbizkaitar irriegiletarik bat atzemanik sasi-gibelean, han hari zuan, yo eta

yo, sagardearen giderraz muthiko abil horri zurra-aldi ederrenaren ematen, merezi ere zuen bezala!...

»Nahiko nian, Pello, muthil traste horrek eman balio bertze lagun hari ere karatosa-aldi bat ona, sagarde gider berarekin, bainan uste izateko duk abilenak ihes egin zuela, eta bertzea, piro bat bezain tontoa baitzen, ezin urrunduzela aski laster Manuelen sagardearen menetik.

»Nik orduan, Pello, nahiz bortxatua nintzen noizetik noizerat kuskakoa hartu nuen lekhuaren pherekatzerat, (errainetarik beheraxago), ez nian denborarik galdu nere behien aldera guateko, segurki eskerrak bihurtzen nituelarik Yainkoari, zeren, min gehiago gabe, irrisku ikharagarri hortarik athera ninduen!...

»Hiru dotzena aran gutienez ekharri bainituen golkhoan, Mattinek yan zitian gehienak, irri ederrik egiten zuelarik segurki nik ibili nituen tribulazionez; bainan, Mattin alegera bezain ni goibel ninduan, Pello, eta zertako?... Zeren bainuen, nere baithan, halako beldur bat nere aranen hitztorioa ez zela hortan akhabo!...

»Ondoko gauean, amex egin nian errientak bazakiela nere abileziaren berri, eta eskolan, erregela handi bat eskuan, nere begira zagola, merezimenduaren arabera nere sariztatzeko.

»Biharamunean, izan ninduan, eskolara guateko ordean, bipher egitekotan ere, bainan, goiz-xago edo berant-xago, berdin atzemana izanen nintzelakoan, guan ninduan halere eskolara.

»Zer ikharak nituen galtzetan, eskolara igituan!...

»Athea ideki eta, ikhusirik errienta yarria zagola malxoki bere lekhan, atrebitu ninduan, ni ere, yartzera nere alkhiaren gainean.

»Nere bi Lehenbizkaitarrak yadanik han zituan, eta ohartu ninduan berehala batek airos eta alegera bezain bertzeak ilhun eta goibel zuela bekhundea, azkeneko hau orhoitzen zelakotz naski oraino Manuelen sagarde giderraz?...

»Goizeko eskola erran eta, naski penxatzen dukan bezala, izan nian, Pello, esplikazionetto bat nere bi Lehenbizkaitarrekin. Bainan muthiko hoyek batek eta bertzeak, yuramentu eginik, "Fundi!" erranik, uste izan zutela egiazki, eta oraino ere uste zutela aran-ondo madarikatu

hura mundu guziarena zela, elkharrekin bakea egin ginian, eta, guan ninduan etxera ethortzean baino alegeraxago, gauza hortan akhabo zelako esperantzan.

»Aditu duk behinere, Pello, erraten goitatz ez dela frankotan deusik galtzen? To! huna non den egia horren froga bat!...

»Arraxaldeko eskolan, ordukotz bezperako tribulazione guziak ahantzia, hari ninduan, burua bi eskuez harturik, egin ahalak egin, katiximako kapitulu baten ikhasten, noiz eta ere aditzen baitut, kask-kask, norbaitek yotzen duela eskolako athean; errientak, bere lekhutik altxaturik, athea ideki duenean, ikhusten diat, Pello, emazteki bat propiki emana, ederki aphaindua, mintzo dela jaun errientari khar handi batekin, zerbaitez errenkura balitz bezala.

»Barneko aldera sarthu denean, behatzen diat ongi emazteki hori, eta nor uste duk, Pello, ezagutzen dutala?...

»Nere aran-azpiko axoa!!!

»Nahiz ederkiago beztitua zen, bezperan baino ere ehun aldiz izigarriagoa kausitu nian

axo-zahar hori. Egia duk, bezperan, ez nuela ikhusi gain-behiti baizen?...

»Beraz, Pello, ikusi eta ezagutu dutanean emazteki hori, eta bereziki haren boz erlhaxa aditu dutanean, iduritzen zaitak, muthikoa, ehun-mila xinhaurri bedere aztaletan gora igaten zaizkitala, eta, ikhararen bortxaz, katixima erortzen zaitak eskuetarik...

»Errientak, kheinu batez, alxarazten gaitik guziak gure alkhetarik, eta lerro-lerro ezartzen eskolaren buru batetik bertzera.

»Orduan, yeneral bat harmada baten aitzinean ibiltzen den bezala, axo madarizione hori, errientea ondotik, heldu duk gure aitzinera, haur guziak, bat bertzearen ondotik, bere begi gorri ikaragarriekin desbizatzen dituelarik!...

»Ni, Pello, lerroaren erdixuan bezala ninduan, eta, ikhusi naueneko, erhi zimur eta luze bat nere aldera hedatuz, erraten dik xiztuka bezala: "Horra non den!... hori da!"

»Axoak ez zian oraino akhabatu erraten "hori da!" non errientak, beharri batetik harturik, hitz baten errateko ere denborarik utzi gabe, eskolaren erdira ereman baininduen airean!...

»Han, muthikoa, batean beharri batetik, bertzean bertzetik, ahoa ezker eta eskuin beharrietaraino egortzen nuelarik, errientak axoaren aitzinean ibili nindian trapu tzar bat bezala oren laurden bat bedere, harritzeko ere baita nola ez zitzaizkon nere bi beharriak eskuetan gelditu!

»Gero, zango batetik harturik, ezarri nindian leihotik kanpora dilindan eta hola han atxiki ez zakiat zenbat denbora, sofrikarioaren eta izialdu-raren bortxaz alditxar bilhakatu bainintzen!...

»Nere baithara bihurtu nintzenean, axoa eta nere lagunak ere aspaldi guanak behar zituan izan eskolatik. Ez nian ikhusi errienta ere, eta ahal nuen bezala altxaturik etzina nindagon lek-hutik, guan ninduan etxera, arrolaka, ederki umatua, yuramentu egiten nuelarik ez nintzela segurki gehiago bide-hegietako aran ondoen gainerat iganen!...

»Horra, Pello, nola abila izateak, batzuetan on bada, bertzetan ez duen ondorio onik!...»

6en KAPITULA

PIARRES ADAME OLHETAN.

HAREN OMORE ONA

Piarres Adamek bere hurreko bigarren hitztorio hori akhabatu zueneko, hurbil ginen Olhetatik; bortz ehun bergetan bezala, eta, gure ezkerreko aldetik, bidearen hegian zen sasi handi baten ondora heltzean, nere aldera itzuli-rik, Piarres hor hasten da oihuka:

«Kontu, Pello, kontu!... Har makhila! Hemen dituk exaiak!...» Eta, denbora berean, bere makhila gorria buruaren gainetik birundan dabilkalarik, hurbiltzen da, saltoka, sasi hortara, boz ikharagarri batekin oihu egiten duelarik: «Axut! muthikoak, axut!»

Nik, gibelaxago gelditua nindagon lekhitik, ikhusten ditut orduan sasitik atheratzen, lehenik, bi zizpa-kanoien muthurrak!... zeinek, aithortzen dut, ez baininduten guti izitu... eta, gero, bi gizon bizardun, zeinek gutiago izitu baininduten, batean ezagutu nuelakotz nere anaya. Laster yakindu nuen bertze gizon bizardun hori Piarre-

sen iloba zela, familiako aita prestu bat, eta, nere anaya bezala, gobernarenduko gizona. Biak gure bidera ethorriak ziren, ez segurki xede gaiztoarekin, bainan hoberenarekin.

Geroztik galdegin izan diot nere buruari nola othe zakien Piarresek gure bi ahaideak sasi haren gibelean kausitzen zirela; dudarik gabe, berak erraten zuen bezala, sudur handiko gizona zelakotz?...

Piarresek, zenbait salto eta burfurien medioz, exaieri harmak pausarazi ondoan, heyekin bakea egin zuenean, yauntzi gintuen biek gure maripulisak, eta Piarresek, espartinak khendurik, zapata eta galtzerdi ederrak soinean ezarri.

Gero sartu ginen, lauak batean, lerro-lerro, Olhetako plazan, erran nahi baita hiru edo lau etxe gisakoen artean, zeinek iduri baitzuten elkharri gibel aldea erakusten zutela, behar bada elkharrekin hasarre, edo muthur zirelakotz.

Gure ahaiden egoitza, zeina baitzen Kaserna, Olhetako plaza prinzipaletik berrehun bat bergaz oraino urrunago baitzen, eta bertze alde, aphur baten astia baikinuen bazkal tenorea baino lehen, hantxe, ostatu batean trikatu ginen eta

hartu gintuen denek, Piarresek erreberritu, bazkariraino heltzeko indarrak.

Erran gabe doha, irakurtzaile maitea, mahain berean bazkaldu nuela Piarresekin; eta haren ondoan yarria ere nintzen, gure ahaidekin.

Bazkari ederra ginuela, ez da dudarik; orhoitzen naiz oraino bagintuela tripakiak eta guziak! Piarresek yan baitzituen zizter osoak, zeren eta gauza guriak baitzituen bereziki maite, ez bada hortzek trabatzen zutelakotz... bainan ez zituelakotz oraino guanik ethorriak! eta, nola batzuetan, uste gabean, kokoxa behera jausten baitziztzaion herde xorta zenbait, aldi batez ilobak, errabiarazi nahiz, erran zion Piarresi: «Osaba, emazu kontu! Herdea darizu kokoxa behera!» Eta Piarresek: «Ah! tontoa! Hobe huke hik ere herdea balarikik! Ez dakik bada haurreri, hortzak ethortzean, hasten zaiotela herdea?...»

Ederki bazkaldu ginuela, erran gabe doha, bainan yanhari eta edari hoberenek baino on gehiago egin zarotaten niri, Piarresek egin-arazi zarozkigun irriek.

Eta gero, bazkal ondoan, Olhetako plaza prinzipalera guan ginenean?... Urthe hartan, hauzo

hartako bestan kausitzeko zoriona izan zutenak segur naiz orhoitzen direla oraino Piarres Adameren omore onaz. Nola, lehenago erran dugun bezala, gehienek ezagutzen baitzuten Piarres, eta hunek ezagutzen baitzituen gehienak, ikhusten zituen guzieri Piarresek ematen zioten berxu bana, zakizkan aire guzietan.

Hobe dugu lehen bai lehen heltzea Piarresen hitztorioetara eta bera aditzea mintzatzen. Hargatik erran behar dugu, zenbait hitz laburrez, Olhetako besta eder hortan bazirela xirola, ttuntuna eta xirribika ere, eta yotzen zituztela superki muxiko, faldango eta bertze dantza suerte hainitz; ilhun nabarrean, gure ahaidetara bildu baino lehen, Piarresek eman zuen haitada bat borthitza muxikoetan; denak gelditu ziren dantzatik hari behatzeko. Loria zen ikhustea orduan Piarresek bere makhila gorri letoidun ederra eskuan, zein ederki pikatzen zituen dantza zahar eta eder hortako pontu guziak, ezker eta eskuin biratzen zelarik, aitzinat salto, gibelat salto... Noizetik noizerat zenbait haiztur ere artean egiten zituelarik.

Azkenean, arras unhatua, izerditua eta porrokatua, guziera salutzantzia eder bat egin ondoan, hurbildu zen nere ganat eta erran zarotan: «Pello, goazen etxerat.»

Afalduxe ginuenean (ezen bazkaldu berriak ginen, eta zenbait egunentzat ongi izateko gisan), etxeko andreak, Piarresek galdeturik, erakuxi zarozkigun guretzat ziren bi oheak ganbara berean.

Axegin hartu zuen Piarresek!... dantzan lehertua zelakotz.

Pipa bethe eta phiztu ondoan, huna nola mintzatu zitzaitan bere ohetik, nik neretik aditzen nuelarik:

«Bihar, bazkal-ondoan, lothuko gaituk, Pello, gure bideari, etxeko alderat, ikhusten baitut nik erranak egiten ditukala orai artean; beraz muthiko prestu bat haizela, erranen darozkiat bihar, bidean, nere gaztetasuneko hitztorio eder bat edo bia. Orai nahi baduk, lokhartu baino lehen adituko duk bat laburra, bainan egia, eta gerthatu izan dena Espainian, Madrileko ondoan.

»Idek zatzik beharriak, Pello, eta ez hadila lokhar.»

DON PAXEKO ETA DONA INKARNAZION

«Sekulan gerthatzen bazaik, Pello, guatea Madril deitzen den Espainiako hiri famatura, galde zak non den Puerta de la Luna, eta athe hortarik ilkhi ondoan, ikhusiko duk bidetik ezker, harako, han, mila bat bergetan bezala, etxe multxo bat, haizti eder baten hegian. Haiztiaren Erdiko yauregi hura deitzen duk *Ezkur-Jale*, zeina baita seinale bat, yauregi hori egin zutenean, lekhu hortan bazirela eskualdunak; bertzenaz nola izanen zen yauregi hori, deithua Eskurjalaren egoitza?...

»Mendeak eta mendeak ditik, Pello, Espainiako errege handi batek, bere populu gaizoaren nekez eta izerdiz, (zuzen zen bezala?) egin-arazi zuela yauregi eder hori, behar zuelakotz, hiritik kanpoan, udako bero handietako, egoitza fresko eta gisako bat, beretzat, bere familiarentzat eta korteko lehen gizon eta emazte gaxoentzat.

»Yauregiaren oinetan den herri ttiki eta pullitak izena dik: Buen-Retiro.

»Denbora hartan Buen-Retiron bizi zituan bi senhar-emazte, senharra Paxeko, emaztea

Inkarnazion. Ez ziteyan haurrik nahiz aspaldi esposatuak ziren. Hauzoko mihi tzarrek erraten ziteyan “damu zela segurki doña Inkarnazionek ez izatea haurrik, zeren, hitzuntzikerian iragateko ordean bere denbora guzia, haurren arhathzen iraganen baitzuen behar bada parte bat.”

»Erraten ziteyan ere andre hori, franko nahasia balinbazen emazteki batenzat, Paxeko, bere aldetik, gizon gisa, franko esku zalukoa zela, eta bere burua etxean fierkisko errespetarazten zuela. Zenbaitek erraten ziteyan oraino aditzen zituztela, bereziki igande arraxetan, Inkarnazioen deihadar batzuek?...

»Ah! Inkarnazionek izan balitu besoak eta eskuak hain azkar nola baitzuen mihia abil!... Ba, bainan, nahiz idekia, nahiz hexia, Paxekoren eskua gauza borthitza baitzen ordean? Horra zertako, ezin bertzez, aspaldiko denboretan Inkarnazion bereak golkhoan zagon, bortz aldiz egiten zuelarik bere baithan: “Ago, ago, Paxeko! ethorriko duk orena, hik ere hartuko ditukana hireak eta asto beltxarenak!...”

»Astelehen goiz batez, Andre Inkarnazion, goizean goiz yeikia, bezperako haitadaz oraino

naski orhoitzen zelarik, yo harat, yo hunat, hau-zoz-hauzo zabilayan, bethi bezala berriketan... Hor ikhasten dik nola, Ezkur-jaleko yauregian, dona Resurrezion, errege eta erreginaren alaba baxarra, hiltzeko menean den, bezperan oilasko hexur bat zintzurtean gelditurik!... nola, korteko miriku abilenek ezin athera dezoketen hexur hori andre prinzesari...; eta nola errege eta erregina nigarrez urtzen hari diren!...

»Berri ikharagarri hori ez zuan hain laster barraiatu Buen-Retiroko herrian, non arpegi guziak goibeldu baitziren; xoilki Andre Inkarnazio, aphur bat gogoetan egon eta, beharri giblean hatz-egiten zuelarik, baziohak haya-haya, yauregiko athera. Athezainak, Inkarnazioek galdeturik, segitzen dik andre hori erregeren lekhaio lehenaren gana. Jaun lekhaioak galdetu diotanean zer nahi duen, Inkarnazio mintzatzen zaiok gisa huntan:

»Jaun lekhaioa, orai berean ikhasi dut doña Resurrezion, gure prinzesa maitearen bizia irris-ku handian dela, oilasko hexur txar bat dela medio; ez omen baita ere denborarik galtzeko, horra zertako ethorri naizen, jauna, zuri erratera

badela, Buen-Retiron berean miriku bat hainitz abila; hezurretako gauzetan beriziki hainitz aditzen zaiona; neronek frogatua dutalaketz behin baino gehiagotan, mintzo natzaitzu hola... Miriku horrek izena du Paxeko. Erran behar darotzut ere, yauna, miriku horrek ez duela aithortu nahi mirikua dela. Bizkitartean, segur naiz, nahi badu, berehala sendatuko duela doña Resurrezion maitea. Bihotz onez obeditu nahi ez badu, lau edo bortz gizonek makhila mehetto banekin, eman dezotela zurra-aldi bat ona, eta ikhusiko duzu nola sendatuko duen eria!...»

«Hola mintzatu ondoan, Andre Inkarnazion, bereak golkhoan, eta irri falxo bat ezpainetan, bazohak etxera, eta ez zuan iragan oraino oren erdi bat, non korteko bi jaun handi ethorri baitziren, erregeren partez, don Paxekoren bilha.

»Paxeko gaizoa, sekulako harritua jaun erregek egiten dion ohoreaz, aphaintzen duk ahalik ederkiena, handi-handiengan, eta, segitzen ditik bi jaun hoyek, Andre Inkarnazionek irri ederrik egiten duelarik segurki leiho gibelean gordea dagon xokotik!...

»Yauregira heldu diren bezain sarri, jaun lekhaio lehenak sar-arazten dik Paxeko ganbara eder batean, eta, nola ez baitzen denborarik galtzeko solas alferretan, erraten zio berehala:

»—Paxeko, nahi duzu, bai ala ez, erregeren alaba sendatu?

»Paxekok errepusta:

»—Nola senda dezaket nik erregeren alaba edo bertzerik ere, mirikua ez naizenaz geroztik?...

»—Hox! aski solas, dio jaun lekhaioak, nahi duzu, bai ala ez, andre Prinzesa sendatu?

»Paxekok:

»—Bainan ordean, erraten darotzut, yauna, ez naizela...

»Orduan, Paxekori mintzatzeko ere denborarik gehiago utzi gabe, jaun lekhaioak egiten dik kheinu bat eta, bet-betan, lau gizon atheratzen dituk lau aldetarik, haga luze bana eskuetan, eta hantxe hasten pinpi-panpa, yo eta yo, Paxeko gaizoaren zurratzen, yotzen dutelarik, batek bizkarrean, bertzeak aztaletan, bertze batek errainetan, laugarrenak beheraxago...

»Paxeko orduan deihadarka: “Ai, ai ai! ai, ai, ai!...”

»Nola doña Resurrezion aldeko ganbara eder batean baitzen bere aita errege eta ama erreginarekin, galdetzen dik zer diren oihu izigarri hoyek, eta bere aita jaunak erran dioenean oihu hoyek direla miriku handi baten deihadarrak, Andre Prinzesak gauza hori hain bitzia kausitzen dik non hasten baita kar-kar-kar irriz, eta, krik! hor heldu zaiok ahora zintzurrean gelditua zuen hezurra!...

»Orduan, errege jauna, hezurra eskuan harturik, baziohak lasterka Paxeko gaizoa oihuka hari den lekhura eta ikusten dik gero eta gehiago umatzen hari dutela!

»—Geldi! —egiten dik oihu jaun erregek— Geldi! Sendatu du!... Sendatu du!...»

»Eta denbora berean hartzen dik Paxeko bere besoetan eta tinkatzen hainbertzetaraino, non Paxekok uste izan baitzuen, bertzek zurratu ondoan, jaun horrek itho nahi zuela!... Zer axegina izan zuen gero, jaun erregek, besarkatu eta, erran zionean: “Milesker, don Paxeko, milesker! Biba zu! bai, biba zu, segurki! Ez nuen uste baze-

la nere erresuma guzian, ez eta ere bertzetan, zure negurriko, zure abileziako miriku bat! Nahi dut izan zaitezten, hemendik aitzinat, nere korteko miriku lehena! Zato, don Paxeko, zato, sendatu duzun eriaeren besarkatzera, eta emozu ere musu pare bat andre erreginari!...”

»Horra, Pello, zer gisetan emazte baten malefizioak ezagut-arazi zuen Espainiak egundaino izan duen mirikurik handiena!

»Gero, don Paxekoren sariztatzeko merezi zuen bezala, errege jaunak nahi izan zian miriku handi hori bizi zadin kortean bere emazte doña Inkarnazionekin, eta egin zian don Paxeko ez zakiat zenbat yauregi, ontasun eta miliunen yabe, naski berak ere aise irabaziak zituelakotz?...»

Piarres, hitztorio hori akhabatu eta argia hil ondoan, lokhartu zen, eta ni ere ba.

7en KAPITULA BESTA HIRUGARRENA OLHETAN

Biharamun goizean, zazpi orenak ez ziren urrun behar izan ni atzarri nintzenekotz. Behatu nuen berehala Piarresen ohera «Egun on» errateko xedearekin, bainan ez nuen ikhusi, ez Piarresik ohean, ez eta ere piparik bezperan pausatu zuen lekhan.

Egia errateko, lehen mementoan, beldurra izan nuen ni gabe hartu othe zuen bedere Sara-ko bidea; bainan, nola Piarres esperientzia handiko gizona baitzen, eta, dudarik gabe, goizean goiz yeikirik, ganbaratik athera baino lehen, ohartu baitzen lo nindagola kintaleko harri bat bezala, amoreak gatik eta uste izan ez nezan guan zela etxera ni han utzirik, ezarri zituen bere makhila eta maripulisa, bat bertzearen aldean, ohearen zangoetan, nik, atzartzean, berehala ikhusteko gisan.

Atzarri bezein laster ohetik salto egin nuen, eta, beztitzen hari nintzelarik, aditu nuen Piarres

norbaitekin gorasko mintzo zela, haserre balitz bezala. Bigarren boza iduritu zitzaitan haren ilobarena zela. Dudarik gabe elkharren kitzikatzen hari ziren, bethi bezala, irri egiteko; eta, ni, bez-titu eta, hek ziren lekhura, sukhaldera, guan nintzenez, ilobak erraten zion osabari:

—Zer! osaba, zureak gehiago dire naski oraino, atzo arraxean ereman duzun bizia ereman ondoan?... Ez zare ahalkatzen, zure adinean, plaza publikoan dantzan haritzeko?... Zer erran behar dute ezagutzen nauten yende onek, yakiten dutenean nere osaba zarela?...

Piarresek:

—Ago ixilik, iloba, ago ixilik! Atzo ni dantzatzen ikhusi nautenek, zerbait aditzen bazaiote, yakiten dutenean hire osaba naizela, erranen ditek merezi dukan baino ohore handiagoa dukala ni bezalako osaba baten iloba izatea, eta, hi bezala mintzatzen direnak, hi iduri hauten zoro handi batzuek izanen dituk!... Atzemak hori, iloba!...

Gero, ohartu zenean ni ere sukhaldean sartzen nintzela:

—Hor haiz, Pello —erran zarotan Piarresek—
hor haiz? Egin duk lo?

Nik:

—Ba yauna; milesker! atzo arraxetik hunat lo
bakhar bat egin dut.

—To, hik baino lo gehiago egin diat beraz,
ezen egin ditiat bortz edo sei bedere... Egia duk
Olhetako eta hauzo-herrietako kukuso eta zimitz
guziak nere ohera deithuak eta bilduak zituzte-
la..., dudarik gabe nere erne egon arazteko, edo,
behar-bada, nere irex-arazteko?... Urosa nauk,
segurki, oraino hemen bainaiz; ezen, utzi banio
kukuso edo zimitz bakotxari Piarres Adameren
odoletik edo haragitik xoilki untza bat eremate-
ra, ez nindukan gehiago ikhusiko, Pello, osorik,
ez nere puskarik ere...; argia hil orduko, arrano-
ak eta beleak hiliki bati lotzen diren bezala,
azienda izigarri hoyek lothu zaizkitak alde guzie-
tarik asikika, deus ere errespetatu gabe?... Eta,
oihurik egin ez badut, yakiten ahal duk, Pello,
hiregatik dela... zeren ez baihindutan nahi ira-
tzar-arazi!... Hauk guziak hola dituk... eta ez
zakala uste izan azienda hek guziak bere baitha-
rik ethorriak zirela ohe debru hortara, baizik ere

xede tzarreko norbaitek harat bil-araziak edo ekharriak...! Batzuek hola arthatzen ditiztek beren ahaideak, ikhusten dukan bezala!...

«Hoik guziak hola, Pello, gosál zak; horrako ophor hortan duk hire gosaria; sarri bazkalduko diguk ahalik hobekiena, hemen ez bada, bertze nonbait..., eta, gero, lothuko gaituk Sarako bideari... zenbaitek axegin izanen baitute... eta guk ere ba, Pello?»

Erran gabe doha, Piarresek, ni yeiki baino lehen, eginak zituela gosari ttiki eta handiak, eta erreak ere zenbait pipa, ilobak eta biek mokoka-aldi franko ematen zutelarik, elkharrekin trinkatuz.

Piarresek berak erraten zuen: ez zuela exai handiagorik adiskideak eta ahaideak baino, eta, elkharrekin zirenean, ez zirela kontent non ez ziren hasarre.

Oharturik berriz ere osaba-ilobak, bethi bezala, piko eta piko hasten zirela, nik irexi nuen lehen-bai-lehen, kilimiliklik, Piarresek erakuxi zarotan ophorraren barnekoa, eta gero, baikinuen, Yainkoari esker, denbora franko iragaiteko bazkarira heldu baino lehen, guan ginen, Piarres

eta biak, itzuli baten egitera Berrako mugaraino, eta han, harroka baten hegian, yarri eta, pipa zirikatu, bethe eta phiztu zuenean, huna nola mintzatu zen Piarres:

«Hi eta ni, Pello, Sarako haurrak gaituk; badakik guretzat ohore handi bat dela hori?... Sara duk herri guzietan maithagarriena eta famatuena; ez nauk hola mintzo segurki, neroni Saratarra naizelakotz... Ez!... gaizki lukek bere buruaz espantu egitea...; bainan, hargatik, bate-re nere burua goregi altxatu gabe, uste diat erraten ahal dutala Piarres Adame bezalako gizon guti ikhusten dela bazterretan. Ez diat maite mintzatzea, Pello, Yainkoak eman darozkitan dohain handiez, zeren bere baitharik ageri baitire...; bainan erran zukek ez dutala begiratzaile eskasik nabilan lekhuetan.

»Ez duk ikhusi, Pello, atzo berean, Olhetako plaza printzipalean, nori beha zagon bestara ethorria zen yende guzia? Muxikoetan hasi nintzenean, begi guziak nere aldera itzuli zituan!... Bakhotxak haxa ere doi-doia hartzen zian, beldurrez den mendren harraboxa eginez, hux egin-araz zezan nik egiten nituen piko edo haizturre-

tarik bat!... Han kausitzen ziren guzien bihotzek, bereziki andrenek, nik bezenbat salto egiten ziteyan ! Eta, heronek ere, Pello, segur nauk egiten huela hire baithan: “Zer ohorea guretzat, Saratarrentzat, Piarres Adame gure herritarra izatea!”

»Eta orai gure artean erran zezakeyagu Olhetako bestak besta hixak izanen zirela aurthen, Piarres Adame, Saratarra, han kausitu ez balitz.

»Yainkoak nahi izan dik egundainotik Saran kausi zaitezen gizonik abilenak; hautarik zenbaiten izenak ezagutzen dituk naski, Pello, bainan badiat beldurra ez dakikan, behar bada, zein abilki yokatu zen behin Sarako yaun hauz'aphez bat, zeinak izena baitzuen Erremundegibehere. Hitztorio hau herriko-etxeko liburu handian etzana duk, erakustera emateko bezala Saran, bethitik ez bada, aspaldiko mendetan bedere, ez direla eskas izan gizon abil eta yakinxunak.»

8en KAPITULA

PIARRES ADAMEREN 3en

HISTORIA

1555an, Erremundegibehere Sarako haur'aphezak egin zuen abilezia.

«Mila borts ehun eta berrogoi eta hamaborts zuan; uda azkena.

»Denbora hartan, Pello, Saratarrak eta Zugarramurdiarrak gerlan zituan, batzuek bertzen kontra. Huna zertako:

»Sarako arthalde bat mugarriz alde hartara alhatzen zenean, Zugarramurdiko artzainek, zeinen nagusiak komentuko fraideak baitziren, franzes arthalde hori, inguruan harturik, erematen ziteyan, aitzinean, fraiden komentura. Orduan, fraiden eskuetaraz geroztik, adio arthaldea Saratarrentzat!

»Sarako artzainek ere, nola erne baitzauden, penxatzen dukan bezala, ikhusten zutenean Zugarramurdiko arthalde bat mugaz alde huntara alhatzen, edo xoilki mugarat hurbiltzen, hek ere inguratzen ziteyan berehala arthalde hori

eta ekhartzen Sarako plazara. Gero han, lehenago hamar ardi edo zikiro galdu zituenak, atzematzen zitian hogoi, eta gehiago ere ba, ahal bazuen.

»Ikhusten duk, Pello, holako egitate ixusiak elkharri eginez, Sarak eta Zugarramurdik amodio guti behar zutela izan batek bertzearenzat.

»Bainan nola lehenago ere, orai bezala, bi herri amulxu hoyetako yendeak handizki malxoak eta pazientziadunak baitziren, ez zituan berehalakoan elkharri yokatu. Egia duk bi herri hoyetako yaun hauz'aphezak egiten zituztela beren eginahalak beren herritar malxoan malxoki egon-arazteko.

»Zugarramurdiko hauz'aphezak izena zian Haranxipi; Sarakoak Erremundegibehere. Noize-tik noizera, bi yaun hoyek biltzen zituan elkharren ganat, konxeiluko bertze zenbait lagun abilekin; bazkaltzen ziteyan ederki, batean Saran, bertzean Zugarramurdin, denek elkharrekin. Nork pagatzen zuen bazkaria, ez zakiat, Pello; zeren, herriko-etxeko liburuak ez baitu erraten; bazukek hauz'aphezak pagatzen zuten, hala nola konxeiluko gizonak... non ez zuten paga-

tzen... bertzek?... Bainan, berriz ere, hori ez duk gure egitekoa!... Goazen beraz aitzinat!...

»On duk orai yakin dezakan, Pello, murde Erremundegibehere, Sarako hauz'apheza, herriko aberexuenetarik bat zela; bazitian arthaldeak Larrunen, Ibantelin, Harxurian eta, hox! zokho guzietan.

»Nola bera errotazaina baitzen, muthilez zain-arazten zitian bere arthalde handiak.

»Astelehen goiz batez, argia hasi baino lehenago, heldu zaiok Piarres, Harxuriako artzaina, hax-hantua, erraten diolarik: "Oh! yauna, atzo, arraxalde aphalean, mendiaz bertzaldean nintzelarik antxuekin, Zugarramurdiko fraidek ereman edo ereman-arazi dituzte beren komentura gure berrehun ardiak, beren ahariekin, mugarriez hunatako alhan ziren lekhotik. Ohartu naitzen bezein laster, guan naiz Zugarramurdira, eta han ikhusi ditut gure ardiak preso daudela, komentuko korrale handi batean!..."

»Solas hoyek bere nagusiari erratean, artzain gaizo hori ikharan zagoian, dal-dal-dal, beldurrez nagusia borthizki asaldatuko zen, berri hori ikhastean. Bainan, nola ez da harritzen Piarres,

ikusten duenean nagusi hori, asaldatzeko ordean, ez dela den gutiena ere tuntitzen? Baizik ere, eskuineko eskuaz, kopeta pherekatu ondolan, beharri gibelean hatz egin eta, irri falxo bat ezpainenetan duelarik, erraten diola: “Ongi duk, Piarres; athor nerekin herriko etxera.”

»Han, yaun Erremundegibeherek iskribatzen dik letra edo eskutitz bat Zugarramurdiko hauz'aphezari, erraten diolarik: “Adiskide Haranxipi, zato faltarik gabe, lagun bat edo biekin, eguerdi baino lehen; ahate bat salxan, oilo bat eltzean, antzara bat gerrenean eta ni lorietan, zuen beha gaude.”

»Ematen ziozk eskutitz hori Piarresi, erraten diolarik: “Hau eremok berehala Zugarramurdiko yaun hauz'aphezari. Laster egik, Piarres, eta, bidean iragaiten haizelarik, errok Mattin, herriko muthilari, dathorla herriko-etxeko salara hamar orenak baino lehenago.”

»Piarres bideari lothu denekotz, yaun hauz'apheza baziohak bere axudantaren ganat, huni erratera zer iragaten den eta zer xede duen.

»Yaun axudanta herriko gizonen artean abile-
netarik bat zuan, kasik Erremundegibehere
bezein abila; izena zian Lahetxipi.

»Yaun hauz'aphezak erran dionean nola bez-
peran Zugarramurdiko fraidek ebaxi dioten
berrehun buruko arthalde eder bat, eta zer gise-
tan yokatu gogo duen bere berrehun ardien ber-
tze berrehunekin, ahal badu, atzemateko.

»Lahetxipik tinkatzen zioek eskua, erraten dio-
larik:

»—Biba zu! Erremundegibehere; ez da zu
bezalakorik!... Oraintxe ikhusten dut eta aithor-
tzen goraki merezi duzula, nihork baino gehiago,
Sarako herri famatuaren aitzindari izatea!...
Ethorriko naiz, ni ere, herriko etxera, eta, lagun-
duko zaitut zure xede handiaren bethetzen!...

»Hola elkar aditu dutenean axudantak eta
biek, yaun Erremundegibehere atheratzen duk,
eta, nola ez baitzuen batere dudarik egiten
Zugarramurdiko hauz'apheza ethorriko zela,
eguerdi baino lehen, ahate salxaren, oilo egosia-
ren eta gerreneko antzararen usainean; nola
behar baitzuen ere aitzinetik mintzatu Mattin,
herriko muthila, baziohak herriko etxera hamar

orenak baino lehenxago; han kausitzen dik Mattin eta huna zer erraten dion:

»—Adi zak, Mattin, eta har ongi buruan erra-tera nohan hau; denbora laburrik barnean, segurki eguerdi baino lehen, hunat ethorriko dituk Zugarramurdiko hauz'apheza, eta haren lagun bat edo bia; sar-araz zatzik ganbara huntan eta yar-araz horrako alkhi horren gainean; errotek berehala heyekin naizela, eta, orduan, athor heroni, ni, axudantarekin, izanen naizen bigarren ganbara hortara; uste-gabean bezala, utziko duk athea idekia; aditu behar ditek ongi, zer ordena ematen dugun axudantak eta nik.

»Mattin Zugarramurdiarren beha dagolarik lehenbiziko ganbaran, yaun Lahetxipi heldu duk hauz'aphezaren ganat eta sartzen duk bigarren ganbaran.

»Erremundegibeherek hartzen dik eskuan antzara luma xuri bat eta erraten zioke bere lagun Lahetxipiri:

»—Lahetxipi, fraidek ez zakitek frantsesa; nik ere ez hainitz; are gutiago zakitek eskuara...; ni berriz, ez nauk arras trebe españolean... Iskribatzen baniote latinez?... Zer iduritzen zaik?

»Lahetxipik:

»—Zer! yaun hauz'apheza, badakizu latina ere?

»—Nik, bazakiat zer nahi, behar denean!

»Eta, murde Erremundegibeherek, hitz bako-txa gora-gora erraten duelarik, iskribatzen dik, ezti-eztia, paper plama eder batean:

Canailibus monaca,
Volatibus moutones!...
Si non renditibus tropotos,
Justicia condemnorum
A rasibus codarum!...

»Zeinak erran nahi baitu eskuaraz:

Fraide xirxilak,
Ebaxi ditutzue gure xikiroak!...
Ez baditutzue gibelat ekhartzen gure
arthaldeak,
Justiziak kondenatuko zaituzte
Beharriak moztuak izatera!...

»Holako latin ederra aditzean, xoratua, Lahe-
txipik tinkatzen dik yaun hauz'apheza bere beso-
etan...; Hunek, eskutitza plegatu eta hexi ondo-
an ostia gorri batekin, ematen zioke adreza hau:

Patri monacorum, Zugarramurdi.

Erran nahi baita:

Zugarramurdiko fraiden aitari.

»Denbora berean, yotzen ditek athean *kask*,
kask, *kask*; Mattinek idekitzen dik athea, sar-
arazten ditik bi gizon, eta yar-arazten. Gero,
heyeri zenbait hitz erran eta boz aphalean,
baziohak bigarren ganbararat... Han, yaun
hauz'aphezak erraten zioke, alegia aphal, baina
franko gora, ongi aditua izateko:

»Mattin, adi nezake ongi; bazkaldu dukan
bezein laster, habil etxez-etxe, eta errotek ixil-
ixila, herriko yende guzieren, nola Baionatik heldu
diren, egun arraxeko, bortz ehun soldadu, beren
aitzindariekin, hortzetaraino harmatuak; yadanik
bidean direla...; Guziek atxik detzatela oheak
prest-presta... Bihar goizean, argitu baino lehen,
Sarako gizon guziak yuntatuko gaituk harmada

horri, eta, guanen gaituk Zugarramurdira guziak elkharrekin, gure arthalden bilha...; baina, nihork ez dezala deusik aipha?... Ah! zer irriak egin behar ditugun!!! Uste ziteyan naski Zugarramurdiarrek, aski zela Sarako arthalden ebastea, gero yabe izateko?... Ageriko duk fraidek, artzainek eta bertze zenbaitek ere, zer itxura izanen duten, bihar goizean, soka banetarik dilindan ezarri ditugunean!...

»Adi zak oraino hau, Mattin; herritar guzieren mintzatu haizenean ixil-ixila, habil berehala Zugarramurdiko fraiden komentura eta emok hunako eskutitz hau, eskutik-eskura, fraiden aita edo yeneralari, aditu nauk ongi Mattin? Beraz, habil!»

«Yaun hauz'apheza hola mintzatu eta ixildu zenean, Mattin, baziohak, bere gaphelua eskuan, bertze ganbararat, eta han ikhusten ditik, berak yar-arazi zituen alkhian, gure bi yaun Zugarramurdiarrek, eta, ahantzi izan balu bezala errateko yaun hauz'aphezari, bi yaun hek han kausitzen zirela, itzultzen duk yaun Erremundegibehereren alderat eta erraten zioz boz erdi aphas batekin: "O, yauna, badu yadanik aphaur

bat Zugarramurdiko jaun alkhatea, bere lagun batekin, zure ikhustera ethorriak direla; hemen-txe dire, alkhi baten gainean yarriak!”

»Zer! dio Erremundegibeherek, zer! Bazukek jaun hoyek hor diren yadanik aphur huntan, eta ez darotak deusik erran, Mattin?»

»Denbora berean, jaun hauz'apheza bere axudantarekin bazohak Zugarramurdiarretarat, eta sar-arazten ditik konxeiluko salan, Mattin bere aldetik dohalarik izan dituen manuen bet-hetzerat.

»Erran gabe zohak, Pello, gure bi jaun hauz'aphezek, beren bi lagunekin, elkharri agur erran ondoan, ez zutela denbora handirik galdu lehenago aiphatu ditugun oilo, ahate eta antza-ren ikhustera guateko.

»Herriko liburuek erraten ditek ere: bi Sarata-rrek hegastin hoyen hegal eta izter osoak irexi zituztela deskanxurik ederrenean, bi Zugarra-murdiarrek doi-doia hegal punta bat edo bia bakotxak xurgatzen zituztelarik. Gero, erranez, batek emaztea eri zuela, bertzeak haur bat koko-lotxarekin, hartu ziteyan biek Zugarramurdiko bidea, debruek ereman balituzte bezala.

»Nahiz badiren lekho bat eta erdi bedere herri batetik bertzerat, ez ziteyan eman xoil oren bat bide horren egiteko, eta sinhesten ahal duk heyen lehen lana, herrirat heltzean, izan zela, ez beren etxetara bainan ba fraiden komentura guatea. Yaun hauz'aphezak erran dioenean zer irrisku izigarrian kausitzen den Zugarramurdiko herria, zorigaitzezko arthalde hura dela medio, fraiden aitak biltzen ditik bere azpiko guziak komentuko kaperarat, eta han yartzen dituk denak othoitzean, noiz eta ere ikharagarriko martilu kolpe bat yotzen baitute komentuko athean...

»Mattin zuan han, yaun Erremundegibeheren letrarekin... Fraiden aitak berak, lasterka ethorri-rik, hartzen dik letra hori Mattinen eskuetarik, eta irakurtzen dik artha handi batekin... Gero, erraten zioz Mattini:

«—Habil berehala hire nagusi handi yaun hauz'aphezaren ganat... Habil!... laster egik!... eta erroz, nere partez, egun berean, iguzkia sartu den baino lehenago, haren berrehun ardiak bertze berrehunekin eremanak izanen direla, gure artzainez, Sarako mugaz bertze alderat.

»Orduan Mattin lotzen duk lasterka bideari, eta hax-hantua, heldu denean Sarako mugarat, han kausitzen ditik, yadanik ethorriak, yaun Erremundegibehere eta Lahetxipi, zeinek yo baitzuten harat dudarik ez zutelakotz komentuko fraiden borondate onaz.

»Mattinek egiten zioz yaun hauz'aphezari fraiden aitaren mandatua hitzez-hitz, eta aphur baten buruan, hor heldu dituk fraiden lau artzain, ekhartzen dituztelarik aitzinean lau ehun ardi Sarako eremuetarat, barkamendu galdetzen dutelarik nagusi fraiden izenean.

»Murde Erremundegibeherek, hartzen ditik hantxe, berrehun ardiren ordean, hiru ehun ardi, laugarren ehuna uzten duelarik yeneroski yaun Lahetxipi axudantarentzat eta konxeiluko bertze menbroentzat.

»Ikhusten duk beraz, Pello, egia niola erranez orai bezala lehenago ere gizon abil eta yakinxunak ez direla eskas izan Sarako gure herri maitean.»

Piarresek hitztorio hau akhabatu zuen hel-tzen ginelarik gure ahaiden artera, zeinak gure begira baitzauden mahainean yartzeko.

Hau da, irakurtzaile maitea, Piarres Adamegure adiskide zaharraren haurreko hitztorioen, erran nahi baita, lehen partearen akhabantza.

(Denbora laburrik barnean, berriz hasteko xedea dugu mintzatzen Piarres Adameren gaztetasuneko, bai eta ere zahartasuneko hitztorio zenbaitez.)

J. B. E. SARATARRA